

LAMIÑA DANTZARIJA

Egunsentiko argijak gabaren illuntasuna ayenatzen eban bi-tartian, «Gallurreta»'ko etxagunaren alabarik gastiena baso-txabolan aurkitzen zana bere aitari gozarija eruatzen urten zan etxetik.

Egunaren goxa, udabarrijaren antz osua artzera joian... Txori abesti zoragarriak errekatxuaren mur-mur ots bakanaz batera «udabarrija» didar egiñaz, bidezti lirañaren oinkada bakotxian baso-lora politik sortzen ziran. Bidiaren zoragarrija!

Eta «Gallurreta»'ko neskiaren bijotz zabalak, udabarrijaren altzuan atsedentzen zalako, barru-taupadaen anots ixillan eresi ederra sortuta, bidia-ziar abesti politik abesten iñarduban.

Axiaren indar bigunak, zugatzetako orri guriak leunki-ro igitu-ten ebazan lez, gure neska gastia- ren soin meia be, zoragarriko bi- dian, abestijaren indar miragarriak gozaro igituta, bide-zidor eta al- datzak bizkor igaroaz, eguzkijaren beroak bazterrak berotzen asi baño lenago aitaren txabolan zan.

Eguna, an goian aitagaz batera ederto ta pozez igarota, illun- tzean basoa bera etxerantza abijau zan. Gaua, illuna ta itzala zan; eta gure neska gaxua ikariaren-ikaraz arnasa be ostaz artzen ebala etorran.

—Au illuntasun bildurgarrija! —esan eban—. Norantza noian baneki... Illargi ederraren argijak lagun begit...

Eta bildurrez bazan be, aurrera ta aurrera egiten eban beti. Alako baten, Untxillatx aldeko odei moltso sendua astiro urratubaz, illargi betia amaseiko gorri baten antzera ikusgarriro agertu zan. Eta bidezti bildurtijak, bere bide-lagun agertu zan goiko argiontzi baka- nari «Agur, ondo etorri!» esanagaz itzalez agurtu eban.

Illargijaren argijak gauari egunaren antza emotian, bere bil- durra beingoan ayenatu zan; eta bidia errazago igaroko ebalakuan, abestijak kantetan asi zan.

Onetan, Aranatx'ko landatxuan, «Illinti»-lamiñia, janzki gorri- gorri bat soñian ebala maniura andi bat jotzen ikusi eban. Eta illargi- rantza begira iñun diran zirki-mirkiñak egiñaz, gurketa bakana egi- ten iñardubala oartu eban... Axe bildurra! Zer egin?...

Ikuskizun ain bakanaz, gure neskiak iges egiteko asmua artu

eban. Baña lamiñiak, kiñu bat egiñaz, neskia geratu eban; eta didar andiz esan eban:

—Ona emen nun datorren nire soñu-otsera dantzatuko dan emakumia... Ene berau dan ederra! Dantzatuko zintzakez bertan? Aspaldiko gabetan ba, illargijaren argi bigunen soñu polit au joten diardut; eta dantzaririk aurkitzen eztodalako, nire lan eta alegin gustijak alperrik ixaten dira. Lana egin eta ezebez... Baña gaur, zu lako emakume liraña aurkitu dodalako, pozez be pozez naz. Onetarako zeu zeran zoragarrija! Soñu onetan dantzatuten bazara, ludija zoriijonekuena zeu izango zintzakez... Eztozu gura?

—Ez; eztot gura —erantzun eutson neskiak—. Guraso onen umia nazalako, gau-dantzaketan-eta enaz oituba. Ganera barriz, neure senargaya dan «Leungane»ko mutillari be olako dantza motak etxakoz atsegin ixaten. Beraz neure soñak, zure soñu-otsera eztau zirkiñik egingo; ezta igituko...

—Ene! Zeu zaran ederraz «Leungane»ko mutillari begira zagoz...? A baño askozaz lerdenuak eta aberatsaguak aspaldiz zeuri adi dagoz-ta... Zelako edertasuna dozun bazenki... Edozeñentzat etzengokez... «Zaldi-urdiñeko» asko be zure gai eztira-ta.

Itz oneik entzutian, neskiak bere kolkorako esan eban: «Onen esan gustijak egijak ete dira? Ala axiaren orbelak lez utsak eta ustelkorak ete dira?

Eta beratzaz entzun ebazan goralbenatzaz apur baten oldozkun egon ostian, lamiñiari ikaraz itandu eutson:

—Ain ederra ete naz ba? Neure arpegijaren irudia ondiño egundo be eztot ikusi... Neure aitak ba, norbere edertasunaren barri jakitia, gaste askorentzat galgarri ixaten dala esaten daust-eta. Bai ete naz ba?

—Ixango etzara ba? Esan dozuzan gauza gustijak, zeure aita-ren lelokerijak baño eztira. Bere esanak egizuz bai? ta ikusiko dozu zorijonak zelako arin iges egingo dautzun.

Eta orduban, lamiñiak, neskiari eskumako eskutik oratu eutson; eta errekiaren ondora eroanda esan eutson:

—Begiratu or, egijaren ispillu garbijan...

Eta «Gollurreta»ko alabarik gastienak, bere begi zabalak errekiaren sakontasunera zuzendubagaz, bere arpegijaren irudija ur gar-denaren argitasunera ikusi eban...

Orduban pozez beterik didar egin eban:

—Ederra nazala? Bai bein! Zure itzak axiaren orbelak eztira... Emakume altsuba zara zeu beintzat. Orain zorijoneko izateko, zeure soñuaren dantzarija ixatia baño besterik eztot biar. Guazen zeure jauregira; antxe bixiko gara ondo-ta. Ango «Lamiña dantzarija» neu ixango naz-ta.

Eta neska gaxua, gau atan, «Illinti»-lamiñiagaz batera «Kobagorri»ra juañ zan. Eta artzulo bildurgarri aretan lamiña biurtuta, ganeko gabetan illargijaren argi bigunan dantzan iñarduten eban. Eta gustijak, «Lamiña-dantzarija» ereisten eutsoen. Dantzaririk bizkorrena zala-ta.

Egun baten baña, «Gallurreta»ko etxaguna, Mugarra'ko puntan bere alaba kutuna zanaren zain aurkitu zan. Eta an, inguruño landa eder baten dantzan ebillela ikusi ebanian, negar eta negar egin eban...

Orduban, aítak, amar bidar beraganatzeko ots-egin ostian, urrengo itzokaz dongetsi eban:

—Alaba gaiztua! Jolas lixun orretan iñardunan artian dongetsija ixan adi. Ta eure aítak sorturiko soin ori bat-batez arri-mokil biurtuko al-don...

Eta une atan, «Gallurreta»ko alaba'ren gorputz liraña arri-mokil biurtu zan. Eta arri-mokillaren inguru gustijan arantza zorrozdun larrosonde batek, lora baltz-baltzak sortu ebazan.

Mañariko

Zorrak atera

Errege baten adiskide ta maikide batek ezeutson bota ba arri bat eskean joan jakon bateri. Eskekoa ixillik egoan. Lurrerantz makurtu ta eskua luzatuz arria artu ta onela esan eutsan aundiki arroari:—Egunen baten, arroputz orri, zorrak aterako dutzunaz ba.

Urte batzuk geroago erregearen adiskide ta maikide zana begitan artu eban erregeak eta zigor gogor eta lotsagarritz buru-lepoak makurtu guraz, kalerik kale, danen lotsagarri erabilli bear zala ta gamelu baten gañean erreñu osoan erakusteko agindu eban.

*Beñolako eskaleak be beragan eukan arria artu eban antxiña iraindu ebanaren burua ausi guraz. Esku-atzamarrak estutu, jaso... **baña, ez, zori onetan iraindutea, zorrak ateratea... gizon izatea be eztok** — esan eta oxin edo pozu batera jaurfi eban arria.*